

KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

ALKIZA
2016ko APIRILAK 19

SPORA
INGURUMEN ZERBITZUAK

Hernani


Pg. Akarregi P-4 A · 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
Telefonoa 943 55 48 74 · fax 943 55 09 00
www.spora.es · spora@spora.es

AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	4
2.1	LANDA LANA	4
2.2	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK	4
3	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA	8
3.1	LANDA LANA	8
3.2	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK.....	10
4	ONDORIOAK	12
4.1	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	12
4.2	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA.....	13
5	2014-2016 URTEETAKO KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA	15
6	UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA	17
7	ERANSKINA	22
7.1	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	22
7.2	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA.....	23

1 SARRERA


Alkizako udalak 362 biztanle ditu (INE. 2015), 11,93 kilometro karratuko hedadura (30,34 biztanle/km²) eta egindako behaketen arabera, 137 etxebizitza dauzka gaur egun. Etxebizitza hauetatik, 96etan egiten da konposta (etxebizitzaren %70a)



1. Abaltzisketa
2. Aduna
3. Albiztur
4. Alegia
5. ALKIZA
6. Altzo
7. Amezketa
8. Andoain
9. Anoeta
10. Asteasu
11. Baliarrain
12. Belauntza
13. Berastegi
14. Berrobi
15. Elduain
16. Gaztelu
17. Hernialde
18. Ibarra
19. Ikaztegieta
20. Irura
21. Larraul
22. Leaburu
23. Lizartza
24. Orendain
25. Oresa
26. Tolosa
27. Villabona
28. Zizurkil

1. irudia: Tolosaldeko mapa

	Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra daukaten landa eremuko herriak.		Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten atez ateko herriak.
	Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten landa eremuko herriak.		Bilketa ekarpen-guneko edukiontzietan eta konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten hiriak.



2. irudia: Alkizako kokapena Tolosaldeko mapan.

Alkizako udal hondakinak edukiontzi irekien bidez biltzen dira: errefusa (edukiontzi berdea), papera eta kartoia (urdina), ontzi arinak (horia), beira (iglu berdea), arropa (Oldberriren edukiontzia, plazan). Organikoa kudeatzeko konpostajea bide bakarra izatea erabaki zen eta herriko etxebizitzaren %70etan egiten da konposta. Errefusari dagokionez, ez da neurri berezirik hartu edukiontzietara botatzen diren hondakinak mugatzeko.

Aurten, ontzi arinen karakterizazio bat egin du Eurocontrol enpresak eta hemen erakusten dira emaitzak. Karakterizazio honetan, Abaltzisketa, Alkiza, Baliarrain, Gaztelu, Hernialde, Asteasu eta Oresako ontzi arinak ikertu dira.

2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

2.1 LANDA LANA

Errefusa biltzeko 3 edukiontzi daude Alkizan: Anoetarako bidean, herriko plazan eta Asteasurako bidean. Astean behin biltzen dira, astelehenetan. Karakterizazioa egiteko, 2016ko apirilak 11ko goizean jaso zen errefusa azkeneko aldiz, errefusa biltzen den maiztasuna errespetatuz. Beraz, karakterizatutako hondakinak 8 egunetakoak izan ziren, apirilak 11 eta 18 bitartekoak, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, deskargatutako hondakin guztiak zabaldu ziren eta, kopurua ikusita, behin laurdentzea erabaki zen, hori da, kopuru guztitik, 2 laurden karakterizatu ziren. Karakterizatutako hondakinen pisua 274,22 kg-takoa izan zen (estimatutako guztira 548,44 kg-takoa izan zen)



3. irudia: Hondakinen deskarga.



4. irudia: Laurdenketa.

HERRIA	EGUNA	ORDUA	IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK
ALKIZA	2016/04/19	08:30 - 14:00	3
HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA	LAURDENKETA	BUKAERAKO PISUA	BETETAKO EDUKIONTZIAK
548,44	behin laurdendua	274,22	2

1. taula: Laurdenketaren eta pisaldiaren datuak.

2.2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

Hurrengo tauletan frakzio bakoitzeko emaitzak ikus daitezke. Frakzio nagusiak eta azpi-frakzioak daude zehaztuak bertan. Aurreko faseko karakterizazioan ez bezala, oraingo honetan ez da hildako animaliarik azaldu. Beraz, taula bakarrean azalduko dira emaitzak.

ALKIZA 2016/04/19			
Frakzioa	Gaia	Pisu garbia	%
Gai konpostagarriak			
1.Materia organikoa	1.1 Haragi eta arrain hondarrak	6,28	2,29%
	1.2 Sukaldeko hondar hezeak	43,91	16,01%
	1.3 Sukaldeko hondar lehorrak	15,14	5,52%
	Materia organikoa (denera)	65,33	23,82%
2.Frakzio begetala	2.1 Lorategiko eta baratzeko hondakin hezeak	53,66	19,57%
	2.2 Lorategiko eta baratzeko hondakin lehorrak	1,17	0,43%
	Frakzio begetala (denera)	54,83	19,99%
Gai konpostagarriak (denera)		120,16	43,82%
Frakzioa	Gaia	Pisu garbia	%
Gai ez konpostagarriak			
3.Beira	3.1 Beira	3,57	1,30%
	Beira (denera)	3,57	1,30%
4.Papera & kartoia	4.1 Papera eta kartoia	8,24	3,00%
	Papera eta kartoia (denera)	8,24	3,00%
5.Ontzi arinak	5.1 Ontzi arinak	19,23	7,01%
	Ontzi arinak (denera)	19,23	7,01%
6.Errefusa	6.1 Errefusa: ehunak	4,67	1,70%
	6.2 Errefusa: pixoihalak eta sanitarioak	36,01	13,13%
	6.3 Errefusa: bestiak	50,73	18,50%
	Errefusa (denera)	91,41	33,33%
7.Bereziak & arriskutsuak	7.1 Bereziak eta arriskutsuak	0,48	0,18%
	7.2 Tamaina handikoak	31,13	11,35%
	Bereziak eta arriskutsuak (denera)	31,61	11,53%
Gai ez konpostagarriak (denera)		154,06	56,18%
Guztira		274,22	100,00%

2. **taula:** Alkizako emaitzak (Pisuak kg-tan neurtuak daude)

Frakzio nagusiei begiratzen badiegu, karakterizatutako hondakinen %43,82a gai konpostagarria dela esan dezakegu: %23,82a sukaldekoa (6. eta 7. irudiak) eta %19,99a baratzekoa edo lorategikoa (8. irudia)



5. **irudia:** Sukaldeko hondar hezeak



6. **irudia:** Sukaldeko hondar lehorrak



7. **irudia:** Lorategiko hondar hezeak

Beste material birziklagarrien emaitzei erreparatzen badiegu, %11,32 birzikla zitekeela ikus daiteke: beira %1,30a, papera eta kartoia %3,00a eta, aipagarriena, aztertutako hondakinen %7,01a ontzi arinak dira (plastikoa, filma, misto bezala sailkatzen diren ontziak, metalezkoak etab. barne)



8. irudia: Beira



9. irudia: Papera eta kartoia



10. irudia: Ontzi arinak

Bereziak eta tamaina handikoei dagokionez, nahiko kopuru handia aurkitu da, 30kg baino gehiago, karakterizatutakoaren %11,53a (bereziak %0,18a eta tamaina handikoak, %11,35a). Frakzio hau garbigunera eraman beharrekoa da.



11. irudia: Bereziak eta arriskutsuak



12. irudia: Tamaina handikoak

Azkenik, errefusari dagokionez, frakziorik handiena izan da (%33,33a) baina espero zitekeena baino askoz txikiagoa. Azpi-frakzioka, %1,70a ehunak izan dira, %13,13a pixoihalak/ehun sanitarioak eta gainontzeko %18,50a errefusa izan da.




13. irudia: Ehunak



14. irudia: Ehun sanitarioak



15. irudia: Errefusa (oro har)



16. irudia. Grafiko orokorra. Alkizako karakterizazioaren emaitzak gaika sailkatuak.

3 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

3.1 LANDA LANA

Aurten, Eurocontrol-ek egindako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak aurkezten dira txosten honetan. Karakterizazio honetan, Abaltzisketan, Alkizan, Baliarrainen, Gaztelun, Hernialden, Asteasun eta Orexan bildutako ontzi arinak ikertu dira.

Azpi-frakzio ezberdinak sailkatu dira eta 3 talde nagusietan banatu dira: eskatutako materiala, eskatu ez den materiala (inpropioak) eta papera&kartoia (baita inpropioak ere) Eskatutako materiala 11 azpi-frakzio ezberdinu dira karakterizazioan baina 4 azpi-frakzioetan azalduko dira emaitzak. Inpropioei dagokionez, 5 azpi-frakzio ezberdinu dira papera&kartoian eta beste 17 gainontzeko inpropioetan. Emaitzetan 9 bakarrik azalduko dira.

Hurrengo taulan, karakterizazioaren zehar ezberdinu diren azpi-frakzioak (“ikerketan”) eta txostenean azalduko direnak (“Txostenean”) erakusten dira.

ESKATUTAKO MATERIALA	
Txostenean	Ikerketan
Plastikoak	Plastikoak PET
	Plastikoak PEAD naturala
	Plastikoak PEAD kolorekoak
	Plastikoak PVC
	Filmak (erabil bakarreko poltsak izan ezik)
	Filmak (erabil bakarreko poltsak)
	Gainontzeko plastikoak
Metalak	Altzairua
	Aluminioa
Brikak	Brikak
Egurra	Egurra
INPROPIOAK	
Txostenean	Ikerketan
Materia konpostagarria	Materia organikoa
	Lorategiko eta inausketa hondarrak
	Zelulosak
Beira	Beirazko ontziak
Papera & kartoia	Paper inprimitua
	Puntu berdea dituen etxeko ontziak
	Puntu berdea ez dituen etxeko ontziak
	Puntu berdea dituen ontzi komertzialak
	Puntu berdea ez dituen ontzi komertzialak
Bestelako plastikoak	Ontziak ez diren plastikoak (zabor poltsak izan ezik)
	Zabor poltsen filmak
	Ontzi komertzialak ala industrialak (filmak izan ezik)
	Film komertzialak ala industrialak
Bestelako metalak	Altzairua, ez ontziak
	Altzairuzko ontzi komertzialak ala industrialak
	Aluminioa, ez ontziak
	Aluminiozko ontzi komertzialak ala industrialak
Egurra	Egurra, ez ontziak
	Egurrezko ontzi komertzialak ala industrialak
Ehunak	Ehunak
Obra hondarrak	Obra hondarrak
Besteak	Aipatzeko karakterizazioaren arabera

3. taula: Ontzi arinen karakterizazioetan ezberdindu diren azpi-frakzioak.

Urnietako plantan egin da karakterizazioa, 2016ko ekainak 02an eta ia 253 kg ikertu dira.

3.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK


Hurrengo tauletan frakzio bakoitzeko emaitzak ikus daitezke. Frakzio nagusiak daude zehaztuak bertan. Aipatu den bezala, bertan sailkatu diren 33 azpi-frakzio 13etan elkartu dira emaitzen azalpena errazteko. Frakzioen koloreak mantendu dira emaitzak azaltzeko: ontzi arinen horia eta inpropioen grisa.

TOLOSALDEA I (OA) 2016/06/02			
	Gaia	Pisu garbia	%
Eskatutako materiala (%80,34)	Plastikoak	136,69	54,12%
	Metalak	27,24	10,78%
	Brikak	32,75	12,97%
	Egurra	0,04	0,02%
Inpropioak (%19,66)	Materia konpostagarria	6,92	2,74%
	Beira	7,24	2,87%
	Papera & kartoia	9,78	3,87%
	Bestelako plastikoak	18,63	7,38%
	Bestelako metalak	0,07	0,03%
	Egurra	0,49	0,19%
	Ehunak	3,37	1,33%
	Obra hondarrak	0,00	0,00%
	Besteak	9,36	3,71%
Guztira		252,58	100,00%

4. taula: Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak (Pisuak kg-etan)

Eskatutako materiala %77,88a izan da eta inpropioak, berriz, %22,12a. Inpropiorik handienak bestelako plastikoak izan dira (ontziak ez diren plastikoak, zabor poltsak, filmak etab., karakterizatutakoaren %7,38a) Jarraian, papera&kartoia (%3,87a), besteak (RAEE (hondakin elektronikoak), ontziratuta zeuden likidoak eta solidoak, ibilgailuen hondakinak etab., %3,71a), beira (%2,87a)

Azpi-frakzioen grafikoa erakusten da hurrengo irudian. Horiaren tonu ezberdinak erabili dira eskatutako materialaren azpi-frakzioentzak eta beste frakzioentzat, dagokien koloreak:



17. irudia. Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen grafiko orokorra.

4 ONDORIOAK


4.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

Lortutako emaitzekin atera daitezkeen ondoriorik garrantzitsuenak honakoak dira:

- Aurkitutako gai konpostagarrien kopurua oso altua izan da, %44a. Frakziorik handiena sukaldekoa izan da (%24a); lorategiko ala baratzekoa, berriz, %20koa izan da.
- Gai birziklagarrien (ez konpostagarriak) presentzia honakoa izan da: karakterizatutakoaren %1,30a beira, %3,00a papera eta kartoia, eta %7,01a ontzi arinak, hain zuzen ere.
- Errefusa kopurua oso txikia izan da, aztertutako hondakinen %33,33a.
- Azpimarratzekoa, aztertutako hondakin guztietatik bereziak, arriskutsuak eta tamaina handikoak %11,53a izan direla.

ALKIZA 2016/04/19	
Frakzioa	%
1.Materia organikoa	23,82%
2.Frakzio begetala	19,99%
3.Beira	1,30%
4.Papera & kartoia	3,00%
5.Ontzi arinak	7,01%
6.Errefusa	33,33%
7.Bereziak & arriskutsuak	11,53%
Guztira	100,00%

5. taula: Alkizan sortutako frakzio nagusien emaitzak (Hildako animaliarik gabe)



18. irudia: Alkizan sortutako frakzio nagusien emaitzak.

Datu hauekin atera daitezkeen ondorioak aipagarrienak horrela laburbiltzen dira:


- Konpostajearen errefortzu kanpainekin jarraitu behar da.
- Errefusaren edukiontzietan neurriak hartzea gomendatzen da bertan botatzen diren hondakin ezegokien sartzeari mugatzeko.
- Gai birziklagarrien (beira, papera eta kartoia eta ontzi arinak) sailkapena bultzatzen jarraitu behar da, dagozkien edukiontzietan.
- Garbigunera eraman behar diren hondakinak hobeto identifikatzen lagundu behar da.

4.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

- Karakterizazioan azaldutako ontzi arinen proportzioa %77,88a izan da. Inpropioak, berriz, %22,12a izan dira, nahiko ehuneko altua.
- Datu hauek hobetzeko asmoz, ontzi arinetara bota behar ez diren hondakinak ezagutzen erakusten jarraitu behar da.

TOLOSALDEA I (OA) 2016/o6/o2	
Frakzioa	%
Eskatutako materiala	77,88%
Inpropioak	22,12%
Guztira	100,00%

6. taula. Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen datu orokorrak.



19. irudia. Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen datu orokorrak.

5 2014-2016 URTEETAKO KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA

Aurreko fasean egindako karakterizazioan (2014ko azaroak 18an), 717 kilo hondakin bildu ziren eta, horietatik, 358 kilo ikertu ziren. Aurtengo fasean, berriz, 548 kilo bildu dira eta 274 kilo ikertu dira, %24 bat gutxiago. Bi kasuetan ikertu den materiala 8 egunetakoa izan da. Gaur egun Alkizan errefusa gutxiago botatzen dela ematen du nahiz eta edukiontzien kopurua berdina izan eta bertan bota behar ez diren hondakinak mugatzeko neurririk ez hartu. Bestalde, 2014ko kanpainaren zehar Alkizako etxebizitzaren %74etan konposta egiten zen; egun, berriz, %70etan.


Aurtengo ikerketan azaldu diren frakzioen ehunekoak dezente aldatu dira 2014tik. Hasteko, hildako animaliarik aurten ez direla azaldu esan behar da eta 2014an, berriz, karakterizatutakoaren %13,36a izan ziren.

Frakzio konpostagarrien ehunekoak dezente aldatu dira, batez ere lorategiko/baratzeko hondakin hezeengatik: %0,07a 2014an eta %19,57a 2016an inausketa garaia delako, beharbada. Orokorrean, frakzio begetalaren ehunekoa 19,99koa izan da aurten eta 2,65koa 2014an. Materia organikoari dagokionez, aldaketa ez da hain handia izan, 2014ko ehunekoa 29,52koa izanik eta 23,82koa aurten. Hala ere, biak batera ikusita, aurtengo datuak aurrekoak baino askoz okerragoak direla ikusten da.


Frakzio birziklagarrien ehuneko guztiak jaitsi dira 2016an 2014ko emaitzekin alderatuta: %3,32 bat beira gutxiago, %2,28 bat papera/kartoi gutxiago eta %3,88 bat gutxiago ontzi arinetan.

Berriz, errefusa gutxiago azaldu da 2016ko karakterizazioan (%33,33a eta %44,33a 2014an) batez ere pixoihal/sanitario gutxi bildu delako (%13,13 2016an versus %22,34 2014an) Ehunek eta errefusak, berriz, ehunekoak mantendu dira gutxi gorabehera.

Bukatzeko, berezi eta arriskutsuen frakzioa askoz handiago izan da 2016ko karakterizazioan (%11,53a) 2014koan baino (%2,60a) batez ere tamaina handiko hondakin dezente azaldu direlako aurten (%11,35a) 2014rekin alderatuta (%1,88a)



20. irudia. Alkizako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)



21. irudia. Alkizako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)

6 UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA

Jarraian, Alkizako datuak aurkezten dira, landa eremuko udalerriekin alderatuta, Andoaingo datuak ere sartu dira materia organikoa kudeatzeko sistemarik ezarrita ez duen herri batekin alderatu ahal izateko ere. Gai nagusien portzentajeak adierazi dira, herri bakoitzean atera diren hondakin bereziak (hildako animaliak, obra hondarrak, etab.) kontutan hartu gabe.

Landa eremuko udalerri gehienek organikoa kudeatzeko konpostajea ezarri dute sistema bakar moduan, eta askok errefusaren ekarpenak mugatzeko neurriak hartu dituzte.


Herri guzti hauen karakterizazioen emaitzen grafiko orokorra erakusten da hurrengo irudian. Datu garrantzitsuak ikustea zaila denez, grafiko ezberdinak erakutsiko dira frakzio batzuk azalduz.

Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra duten herri gehienetan, honen kudeaketa berezia nabaritzen da frakzio konpostagarrien ehunekoetan, nahiz eta kasu batzuetan (adibidez Alkiza, Asteasu, Belauntza, Leaburu) nahiko handiak izan. Bestalde, eta osagarritzko bidekoen barruan bertako sistema bereziak dituen herrietan (Albiztur eta Berrobi) emaitza onak azaltzen dira, talde osoko frakzio konpostagarrien batezbestekotik azpitik.


Gai birziklagarriei dagokionez, lan handia egin behar dela ikusten da. Talde honen herrietan azaldutako frakzio birziklagarriaren proportzioa (hondakin bereziak barne) errefusetik sailkatutako hondakinen %20 inguruan kokatzen da. Alkizan %11 ingurukoa izan delarik. Orokorrean frakzioka, beira hobea sailkatzen dena dela ematen du eta, hala ere, %2,38 bat azaldu da orokorrean. Hurrengoak, hondakin bereziak izango lirateke %3,87 batekin. Jarraian papera eta kartoia (%4,50a) eta, orokorrean gertatzen den bezala, okerren sailkatzen den frakzio birziklagarria ontzi arinena izan da talde honetan ere, taldeko osoren batezbestekoa %8,78a izanik, baina maximoa Gaztelukoa (%24,67a) dela kontutan harturik. Gainera, gogoratu behar da portzentajeak pisuei dagokiela, beraz ontzi arinen kasuan kantitate handietan agertzen direla esan behar da. Beiraren kasuan berriz, emaitzak hobeak diren arren, beti agertzen dira.

Alkizako kasuan, hondakin bereziak ehuneko altuan agertu dira, ikertutako hondakinen %11,53 hain zuzen ere.


Orokorrean, Alkizako datuak nahiko negatiboak izan dira beste herrieekin alderatzen baditugu, datu txarrenak lortu dituzten udalerrien artean dago, errefusaren edukiontzian aztertutako hondakinen artean errefusa %33,33 izan delarik.



22. irudia. Alkizako bilketa sistema berdina daukaten herrien datuak (grafiko orokorra)



23. irudia. Alkizako bilketa sistema berdina daukaten herrien datuak (errefusa versus materia konpostagarria)



24. irudia. Alkizako bilketa sistema berdina daukaten herrien datuak (frakzio birziklagarriak, hondakin bereziak barne)

BIDE BAKARRA + OSAGARRIZKO BIDEA	MATERIA ORGANIKOA	FRAKZIO BEGETALA	BEIBA	PAPERA & KARTOIA	ONTZIARINAK	ERREFUSA	BEREZIAK
ADUNA	9,32%	4,11%	2,60%	5,31%	7,61%	70,31%	0,73%
ALKIZA	23,82%	20,00%	1,90%	3,00%	7,01%	33,33%	11,53%
ALTZO	16,44%	3,56%	1,08%	1,65%	4,00%	71,18%	2,08%
AMEZKETA	7,04%	5,32%	0,27%	2,01%	3,51%	71,71%	4,15%
ASTEASU (herrigunea)	40,79%	5,43%	2,38%	3,70%	11,26%	32,91%	3,52%
ASTEASU (landa eremua)	31,45%	3,98%	1,45%	3,38%	11,78%	38,74%	9,22%
BELAUNTZA	30,22%	14,49%	3,75%	6,06%	8,10%	32,81%	4,56%
BERASTEGI	6,01%	8,13%	0,50%	1,95%	3,19%	70,85%	9,30%
ELDUAIN	16,19%	4,15%	1,35%	4,40%	8,41%	63,92%	1,57%
GAZTELU	32,85%	0,75%	6,55%	5,76%	24,67%	26,01%	3,41%
HERNIALDE	24,54%	6,49%	5,26%	7,02%	12,23%	40,45%	4,02%
LAPRAUL	26,56%	2,10%	2,55%	2,76%	9,17%	54,70%	2,56%
LEABURU	42,52%	5,26%	1,06%	7,12%	12,57%	29,57%	1,00%
LIZARTZA	14,12%	0,07%	1,75%	2,97%	7,68%	71,05%	2,35%
ORENDAIN	16,65%	0,40%	0,21%	4,07%	2,99%	73,43%	2,24%
OREXA	13,76%	5,69%	5,26%	6,85%	8,91%	56,83%	2,71%
ALBIZTUR	9,34%	2,00%	0,44%	3,54%	5,05%	78,81%	0,83%
BERROBI	15,62%	2,83%	1,06%	4,54%	8,63%	62,95%	4,37%
ABALTZISKETA	38,04%	14,15%	3,91%	7,76%	10,40%	22,50%	3,23%
BALIARRAIN	22,58%	15,74%	2,98%	4,49%	5,61%	43,17%	5,42%
ANDOAIN (orokorra)	55,14%	1,16%	3,28%	6,09%	11,62%	20,10%	2,62%
BATEZBESTEKOAK	23,47%	5,99%	2,38%	4,50%	8,78%	51,02%	3,87%

25. taula. Alkizako bilketa sistema berdina daukaten herrien datuak.

7 ERANSKINA

7.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

HERRIA	ALKIZA	EGUNA	2016/04/19	ORDUA	8:30 - 14:00
KOKAPENA	Anoetarako bidea Asteasurako bidea Herriko plaza	IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK	3	BETETAKO EDUKIONTZIAK	2
HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA	548,44	LAURDENKETA	behin laurdendua	BUKAERAKO PISUA	274,22
IKERTUTAKO MATERIALA	8 egunetakoa, apirilak 11a eta 18a bitartekoa, apirilak 11ko goizean jaso baitzen azkeneko aldiz				
OHARRAK	Inausketa hondar pisu handiko poltsa batzuk // Organiko hezeari dagokionez, bakarrik zitrikoen azalak eta hezurrak ala fruitu lehorren azalak poltsa dezenteetan (besteetan, denetik)				
ORDENA	GAIA	TARA	PISU GORDINA	PISU GARBIA	OHARRAK
1	5.1	2,70	6,98	4,28	
2	6.3	1,35	4,44	3,09	
3	6.3	0,00	9,86	9,86	Kakaz betetako bi poltsa
4	4.1	1,35	2,81	1,46	
5	1.3	1,35	4,98	3,63	
6	7.2	0,00	7,89	7,89	Koltxoneta
7	6.2	2,70	18,23	15,53	
8	1.3	0,00	7,95	7,95	Ogiz betetako poltsa
9	2.2	1,35	2,19	0,84	
10	2.1	1,35	27,89	26,54	Poltsa pare bat bete beteak
11	2.1	0,00	27,12	27,12	Poltsak
12	1.1	1,35	3,21	1,86	
13	6.1	1,35	3,67	2,32	
14	1.2	1,35	12,49	11,14	
15	6.3	1,35	9,89	8,54	
16	3.1	1,13	3,92	2,79	
17	5.1	4,05	9,44	5,39	
18	4.1	1,35	4,25	2,90	
19	1.2	1,35	10,89	9,54	
20	5.1	3,83	9,47	5,64	
21	1.2	1,35	18,74	17,39	
22	1.3	1,35	4,91	3,56	
23	6.3	1,35	3,65	2,30	
24	4.1	1,35	2,96	1,61	
25	7.1	1,13	1,61	0,48	
26	3.1	1,13	1,91	0,78	
27	7.2	1,35	7,73	6,38	
28	6.2	2,70	23,18	20,48	
29	1.1	1,35	5,77	4,42	
30	6.1	1,35	3,70	2,35	
31	1.2	1,35	7,19	5,84	
32	6.3	1,35	28,29	26,94	Zementu zakua (15,11kg)
33	5.1	4,05	7,97	3,92	
34	4.1	1,35	3,62	2,27	
35	2.2	1,35	1,68	0,33	
36	7.2	0,00	16,86	16,86	Tximinia (8,24kg), alfonbra (8,62kg)
GUZTIRA				274,22	

7. taula. Errefusaren karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.

7.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

FICHA DE MUESTRA



Planta:	Urnieta	Fecha:	02/06/2016-08:19
Empresa:	EUROCONTROL, S.A.		

Unidad de:	Mancomunidad de Tolosaldea		
Unidad Administrativa:	Comunidad Autónoma del País Vasco		
Unidad de Gestión:	Mancomunidad de Tolosaldea		
Nº Muestra:	4	Periodo:	May - Ago 2016
Tipo de Caracterización:	Recogida Selectiva EELL	Estado:	Cargada
Tipo de Muestra:	Entrada en Instalación	Proc. Facturación:	Variable
Tipo de Recogida:	Envases Ligeros CARGA LATERAL		
Matrícula Vehículo:	2774FYS	Kg Vehículo:	2260
Observaciones:	Procedencia: Abaltzisketa, Alkiza, Balarriain, Gaztelu, Herrialde, Astasu y Orea. Desgloses en Kg: (1) Otros: Líquido contenido en envase: 2,95; Multimaterial: 1,97; Restos de medicamentos: 0,20; RAEE's: 2,02; Sólido contenido en envase: 0,39; Restos de automóvil: 1,30; Material inclasificable del que se ha separado la totalidad de la fracción envase: 0,53.		
Vehículo Rec:	No		
Observ Vehículo Rec:	Porcentaje de llenado: 80%.		

Resultado de la Muestra

Material	Cantidad (kg)	Peso (%)
Material Solicitado	196,72000	078
Plásticos PET	37,35000	015
Plásticos PEAD Natural	2,92000	001
Plásticos PEAD Color	13,28000	005
Plásticos PVC	,1000	000
Plásticos Film (excepto bolsas de un solo uso)	43,51000	017
Plásticos Film bolsas de un solo uso	14,03000	006
Plásticos Resto de Plásticos	25,5000	010
Metales Acero	20,85000	008
Metales Aluminio	6,39000	003
Cartón Bebidas / Alimentos	32,75000	013
Madera	,04000	000
Material No Solicitado	55,86000	022
Material No Solicitado (Excepto Papel/Cartón)	46,08000	018
Materia orgánica	2,17000	001
Resto de jardín y podas	3,2000	001
Celulosas	1,55000	001
Textiles	3,37000	001
Madera no envase	,49000	000
Madera Envase Comercial/Industrial	,000	000
Vidrio (envases)	7,24000	003
Plásticos No Envase (Excepto Film Bolsas de Basura)	8,15000	003
Film bolsas de basura	4,01000	002
Plásticos Envase Comercial/Industrial (Excepto Film Comercial/Industrial)	3,07000	001
Film Comercial/Industrial	3,4000	001
Resto de obras menores	,000	000
Acero no envases	,07000	000
Acero Envase Comercial/Industrial	,000	000
Aluminio no envases	,000	000
Aluminio Envase Comercial/Industrial	,000	000
Otros (indicar significativos)	9,36000	004
Papel/Cartón	9,78000	004
Papel Impreso	3,81000	002
Envase Doméstico con Pto. Verde	5,11000	002
Envase Doméstico sin Pto. Verde	,7000	000
Envase Comercial con Pto. Verde	,000	000
Envase Comercial sin Pto. Verde	,16000	000
Total	252,58000	100

8. taula. Ontzi arinen karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.